


KARAKTERE HEREDAGARRIEN PATROIAK




11.1 Mendel, ilar-landareak eta herentziaren patroiak

→ Herentzia-patroi errepikakorak ugalketa sexualaren emaitza behagarriak dira.


1850. urte inguruan jende askok onartzen zuen guraso biak zirela seme-alaben ezaugarrien erantzule –material heredagarri bidez–, baina inork ez zuen sumatzen ezaugarri horiek unitateka antolatuta zeudenik.

Batzuen iritziz, material heredagarria nahastuta zegoen gurasoek ernalketan trukutzen dituzten likidoekin eta, horrela, **bataren eta bestearen material heredagarriak nahastu egingo ziren**, kafea esnearekin bezala.

Baina belaunaldi askoren ostean populazioa uniformeak izango litzateke.



- Alabaina, “**HERENTZIA NAHASTUAREN**” ideiak ez zuen azaltzen begi-bistakoa dena.
 - Esaterako, guraso berdinak dituzten ume askok begiko edo ileko kolore ezberdina dute haien artean. Gurasoen “likidoak” nahastuko balira, umeen begi koloreak gurasoenen nahasketa lirateke.
 - Bietariko batek ere ez balu orinik, umeek ez lukete inoiz orinik erakutsiko.
 - Gorri koloreko begiak dituen euli batek eta zuri kolorekoak dituen beste batek, begi arrosak dituzten ondorengoak sortuko lituzkete beti.
- Baina gehienetan ez da hori gertatzen, behin eta berriro behatu denez. **Herentzia nahastuak ez du azaltzen ezaugarrien bariazioa.**




GREGOR MENDEL zientzialari austriarrak (1822-1884) milaka ilar-landare gurutzatu zituen.

Dokumentatu egin zuen nola transmititzen diren ezaugarri batzuk landare batetik hurrengora, belaunaldiz belaunaldi, eta hortaz, herentziaren jardueraren zeharkako frogak bildu zituen, zeharkakoak baina behagarriak.




- CRUZA DE PLANTAS DE GUISANTES -



Courtesy of American Philosophical Society, Curt Stern Papers.
Noncommercial, educational use only.


Mendel-ek Brno hiriko monastegi batean igaro zuen bizitza gehiena, Vienatik hurbil, egungo Txekiar Errepublikan. Matematika, fisika eta botanika ikasi zituen Vienako unibertsitatean.

- Mendel-ek ilar-landarea (*Pisum sativum*) ikertu zuen, beharbada barietate asko zeudelako.
- Landare hau **AUTOERNALTZAILEA** da: lore bakoitzak gameto maskulinoak eta femeninoak ekoizten ditu, zeintzuk lore berean fusiona daitezkeen landare berri bat sortzeko.






- Ilar-landareak “**PURUAK**” izan daitezke ezaugarri batzuetarako, adibidez lore moreak.
- Ezaugarri baterako purutasunak esan nahi du ondorengo guztiek progenitore(ar)en ezaugarri bera edukiko dutela belaunaldiz belaunaldi (noizean behingo mutazioak aparte).
- Adibidez, lore moreetarako puruak diren landareen ondorengo guztiek lore moreak edukitzen dituzte.




- Mendel bezalako hazleek **ERNALKETA GURUTZATUA** burutzen dute landare baten lorearen polena beste landare bati transferitzean.
- Esaterako, hazleak lore moretarako purua den landare baten lorea har dezake eta haren anterak erauzi.
Hori egitean lorearen **autoernalketa** ekiditen du. Gero, hazleak igurtzi egin ditzake lorearen parte femeninoak beste landare baten polenarekin, demagun, lore zurietarako purua den landare baten polenarekin.
- Mendelek ikusi zuen ernalketa gurutzatuz sorturiko ondorengoak ezaugarriak **PATROI AURRESANGARRIEN** arabera agertzen direla.



Termino genetiko lagungarriak

Mendelen garaian ez zen ezagutzen geneak zer ziren, ezta meiosis edo kromosomak ere. Haren behaketak argituko ditugu egungo terminoak erabiliz:



GENEAK ezaugarrien informazio-unitate heredagarriak dira.


- Gurasoek geneak transmititzen dizkiete ondorengoei.
- Gene bakoitza kokapen espezifiko batean aurkitzen da (**locus**), kromosoma jakin batean.

A A pair of homologous chromosomes, both unduplicated. In most species, one is inherited from a female parent and its partner from a male parent.

B A gene locus (plural, loci), the location for a specific gene on a chromosome. Alleles are different forms of a gene.

C A pair of alleles may be identical or not. Alleles are represented in the text by letters such as *D* or *d*.

D Three pairs of genes (at three loci on this pair of homologous chromosomes).




Kromosoma-zenbaki **DIPLOIDEA** ($2n$) duten zelulek gene-pareak dauzkate, kromosoma homologoetan bananduta.

MUTATION


Change of A to T

Amino acid changes
from glutamine to valine




- **MUTAZIO** deritzo gene baten informazioan gertatutako aldaketa iraunkor bati.
- Ezaugarri baten aldaketa eragin dezake.
 - Adibidez, geneak hemoglobina normala kodifikatzen badu, genearen forma mutatuak hemoglobina anormala kodifikatu dezake.
- Gene beraren forma alternatiboei **ALELO** esaten zaie.


- Ezaugarri jakin baterako leinu puru baten ale guztiek alelo identikoak dituzte ezaugarri horretarako.
- Leinu puru desberdin biren aleen gurutzaketa baten ondorengoak **HIBRIDOAK** dira.
- Hibridoak ez ditu alelo identikoak ezaugarri horretarako.




- Banako bat **HETEROZIGOTIKOA** da gene baterako, gene horren alelo biak ez-identikoak direnean.
- Gene baten alelo biak identikoak dituen banakoa **HOMOZIGOTIKOA** da gene horretarako.



- Alelo bat **DOMINANTEA** da bere efektuak ezkutatu egiten duenean alelo homologo **ERREZESIBOAREN** efektua.
- Letra larriekin, esaterako **B**, adierazten dira alelo dominanteak eta letra xeheekin, **b**, errezesiboak.



- Banako **HOMOZIGOTIKO DOMINANTE** batek alelo dominante bi ditu (AA).
- Banako **HOMOZIGOTIKO ERREZESIBO** batek alelo pare errezesiboa du (aa).
- Banako heterozigotiko batek alelo bi ditu ez-identikoak (Aa). Heterozigotoak hibridoak dira.




Espresio genetiko esaten zaio gene baten informazioa bizidunaren egitura jakin bateraino transformatzeari. Genearen espresioak dakar ezaugarri zehatz bat.


Bi termino garrantzitsuk bereizten dituzte geneen informazioa eta geneek sorrarazten dituzten ezaugarriak.

- Bata, **GENOTIPOA**, banako baten gene-multzoari dagokio, hau da, daraman informazio genetikoari dagokio.
- Besteak, **FENOTIPOA**, banakoaren ezaugarriak hartzen ditu kontuan, haren kanpo-itxurari dagokio.

Dominantzia eta errezesibotasunagatik, organismo baten ezaugarriek ez dute beti organismoaren konposaketa genetikoa erakusten.

FENOTIPOA		 pollen ♂	
GENOTIPOA		B	b
 pistil ♀	B	 BB	 Bb
	b	 Bb	 bb

- **GURASO** edo **PROGENITOREAK** P letrarekin adierazten dira.
- **F₁** delakoak **LEHEN BELAUNALDIKO ONDORENGOAK** adierazten ditu.
- **F₂** bigarren belaunaldiko ondorengoak dira.
- F letra (=filial) oro har ondorengoak adierazteko erabiltzen da.




11.2 Mendelen segregazioaren legea

- Ezaugarri edo **karaktere** bakoitzerako, ilarrek bi “informazio-unitate” heredatzen dituzte, bana guraso bakoitzetik. Informazio unitateak geneak dira.

PROBA-GURUTZAMENDUA genotipoa zehazteko metodo bat da.

- Genotipo ezezaguneko ale bat gurutzatu egiten da homozigotiko errezesiboa dela ezaguna den beste ale batekin.
- Kumeen ezaugarriek adieraz dezakete genotipo ezezaguneko alea heterozigotikoa edo homozigotikoa den karaktere dominante baterako.
- F_1 guztiak ezaugarri dominantea erakusten badu, orduan genotipo ezezaguna zuen parentala homozigoto dominantea da.
- Aldiz, F_1 belaunaldian ezaugarri dominanteak eta errezesiboak agertzen badira ale desberdinetan, parentala heterozigotoa zen.

Teknika




Eraitza


Ondorengo guztiak moreak

edo



1/2 ondorengo moreak
1/2 ondorengo zuriak



MONOHIBRIDOEN ESPERIMENTUAK proba-gurutzamenduak dira, *locus* bakar bateko alelo bien artean dagoen dominantzia-erlazioa testatu ahal izateko.

- Gene bereko alelo desberdinak dituzten banako puruak edo homozigotoak gurutzatu egiten dira; gurutzamendu horren **ondorengoak hibridoak** dira, **monohibridoak** (heterozigotoak ezaugarri edo karaktere bakarrerako).
- Azken hauen ezaugarriek adieraz dezakete aleloetariko bat dominantea ote den beste aleloarekiko.
- Ondoren, monohibrido edo heterozigoto hauek gurutzatu egiten dira haien artean, $Aa \times Aa$.

Alelo-pare baten segregazioa gene-*locusean*.




ZER EGIN ZUEN MENDELEK?

- Mendelek monohibridoen esperimentuak erabili zituen ilarren 7 karaktereren dominantzia-erlazioak argitzeko.
- Ezaugarri hauek guztiz desberdinak ziren (“bai” edo “ez” ezaugarriak), ez zegoen haien arteko fenotipo partzialik.


Adibidez, lore moredun landare puruak lore zuridun landare puruekin gurutzatu zituen, ez zen bi kolore hauen artean tarteko kolorerik existitzen.

F₁-eko ondorengo guztiek lore moreak eduki zituzten.

- Alabaina, ez zen analisi honetan gelditu. F₁-eko ondorengoak haien artean gurutzatzean, F₂-ko ondorengo batzuek lore zuriak eduki zituzten. Zer ari zen gertatzen?



- Mendelek arrazoitu zuen F_1 landareetan lore zurietarako faktore heredagarria ezkutaturik zegoela lore moreetarako faktorea presente zegoenean.
- Beraz more koloreari dominante deitu zion eta zuriari errezesibo.
- Lore zurientzako faktorea ez zen diluitu edo desagertu, izan ere, F_2 belaunaldian berriro agertzen zen.




Ilar-landareetan gene batek zehazten du loreen kolorea.

- Alelo dominantea (A) daraman edozein landarek lore moreak edukiko ditu.
- Soilik alelo errezesiborako (a) homozigotikoak diren landareek edukiko dituzte lore zuriak.

Gameto bakoitzak alelo bietariko bat darama.

- Orduan, karaktere batekiko homozigoto desberdinak diren landareak gurutzatzen badira ($AA \times aa$), soilik emaitza bakarra da posible:

F_1 -eko ondorengo guztiak heterozigotikoak izango dira (Aa). Denek eramango dute A alelo dominantea, horregatik lore moreak edukiko dituzte.



Mendelek mota horretako ehunka F₁ heterozigoto gurutzatu zituen, eta milaka ondorengo ezaugarriak jaso eta erregistratu zituen.

Patroi berdina ikusi zuen landare hauen beste 6 karaktereren herentzia ikertzerakoan.

Table 11.1 The Results of Mendel's F ₁ Crosses for Seven Characters in Pea Plants					
Character	Dominant Trait	×	Recessive Trait	F ₂ Generation Dominant: Recessive	Ratio
Flower color	Purple 	×	White 	705:224	3.15:1
Seed color	Yellow 	×	Green 	6,022:2,001	3.01:1
Seed shape	Round 	×	Wrinkled 	5,474:1,850	2.96:1
Pod shape	Inflated 	×	Constricted 	882:299	2.95:1
Pod color	Green 	×	Yellow 	428:152	2.82:1
Flower position	Axial 	×	Terminal 	651:207	3.14:1
Stem length	Tall 	×	Dwarf 	787:277	2.84:1

Table 11.1 The Results of Mendel's F₁ Crosses for Seven Characters in Pea Plants

Character	Dominant Trait	×	Recessive Trait	F ₂ Generation Dominant: Recessive	Ratio
Flower color	Purple 	×	White 	705:224	3.15:1
Seed color	Yellow 	×	Green 	6,022:2,001	3.01:1
Seed shape	Round 	×	Wrinkled 	5,474:1,850	2.96:1
Pod shape	Inflated 	×	Constricted 	882:299	2.95:1
Pod color	Green 	×	Yellow 	428:152	2.82:1
Flower position	Axial 	×	Terminal 	651:207	3.14:1
Stem length	Tall 	×	Dwarf 	787:277	2.84:1

- F₂-ko landareetan gutxi gorabehera lautik hiruk erakutsi zuen ezaugarri dominantea, eta lautik batek errezesiboa.
- Mendelen emaitza aurreangarri horiek iradoki zuten ernalketa gertaera aleatorioa dela, emaitza posibleen kopuru finitua duena.
- Mendelek estatistika ezagutzen zuen, eta bazekien emaitza jakin bat gertatzearen neurria dela probabilitatea. Emaitza posibleen kopuru totalaren menpekoea da probabilitatea.
 - Adibidez, heterozigoto bi gurutzatzen badira, gameto mota biak (A eta a) lau eratara elkar daitezke ernalketa-unean:

Gertaera posiblea

A espermatozoidea A obuluarekin

A espermatozoidea a obuluarekin

a espermatozoidea A obuluarekin

a espermatozoidea a obuluarekin


Emaitza posiblea

4tik kume 1 AA

4tik kume 1 Aa


4tik kume 1 Aa

4tik kume 1 aa


		 pollen ♂	
		B	b
 pistil ♀	B	 BB	 Bb
	b	 Bb	 bb

- Gurutzamendu honetako ondorengo bakoitzak 4tik 3 posibilitate ditu gutxienez A alelo dominante bat heredatzeko (eta beraz lore moreak edukitzeko).
- Bestalde, a alelo errezesibo bi heredatzeko (eta lore zuriak edukitzeko) 4tik posibilitate 1 du.
- Horrela izanik, gurutzamendu horretako ondorengo batek lore moreak ala zuriak edukitzeko probabilitatea, 3 da moreen kasuan eta 1 zurientzako, hau da, 3:1 proportzioa.

PUNNETT KOADROAK erabiltzen dira ondorengo genotipo (eta fenotipo) desberdinen probabilitateak kalkulatzeko.



Zirkuluek gametoak adierazten dituzte, hizkiek aleloak. A dominantea da, a errezesiboa. Sortuko diren ondorengo genotipoa laukien barruan adierazten da.



Mendelek behatutako proportzioa ez zen zehazki 3:1 izan, baina bazekien desbideratzeak ager zitezkeela laginketa-erroreak direla eta.

Adibidez, txanpon bat airera jaurtitzean probabilitate bera dago aurpegia edo gurutzea tokatzeko (probabilitatea 1:1 da). Baina sarritan, aurpegia (edo gurutzea) erortzen da hainbatetan jarraian. Txanpona gutxitan botatzen bada, behaturiko proportzioa nahiko urrundu daiteke esperotako 1:1 proportziotik. Horrela, zenbat eta aldi gehiagotan bota, orduan eta gehiago hurbilduko gara auresandako proportziora.

Mendelek minimizatu egin zuen laginketa-errorea laginaren tamaina handituz.

Character	Dominant Trait	×	Recessive Trait	F ₂ Generation Dominant: Recessive	Ratio
Flower color	Purple 	×	White 	705:224	3.15:1

Table 11.1 The Results of Mendel’s F₁ Crosses
for Seven Characters in Pea Plants

Character	Dominant Trait	×	Recessive Trait	F ₂ Generation Dominant: Recessive	Ratio
Flower color	Purple 	×	White 	705:224	3.15:1
Seed color	Yellow 	×	Green 	6,022:2,001	3.01:1
Seed shape	Round 	×	Wrinkled 	5,474:1,850	2.96:1
Pod shape	Inflated 	×	Constricted 	882:299	2.95:1

Table 11.1 The Results of Mendel's F ₁ Crosses for Seven Characters in Pea Plants					
Character	Dominant Trait	×	Recessive Trait	F ₂ Generation Dominant: Recessive	Ratio
Pod color	Green 	×	Yellow 	428:152	2.82:1
Flower position	Axial 	×	Terminal 	651:207	3.14:1
Stem length	Tall 	×	Dwarf 	787:277	2.84:1


MENDELEN EREDUA

- Mendelek F_2 belaunaldian behaturiko 3:1 herentzia patroia azaltzeko hipotesi bat garatu zuen.
- Erlazionaturiko 4 kontzeptuk osatzen dute eredu hau eta kontzeptu hauek erlazionaturik egon daitezke gaur egun kromosoma eta geneei buruz dakigunarekin.

LEHEN KONTZEPTUAK esaten du geneen bertsio alternatiboek azaltzen dutela heredaturiko ezaugarrien aldakortasuna.


- Adibidez, ilar landareen lore kolorearen erantzulea den geneak bi bertsio ditu, morea eta zuria. Gene baten bertsio alternatibo hauek alelo deitzen dira. Gene bakoitza kromosoma zehatz baten locus zehatz batean ezartzen da.

Figure 11.4



BIGARREN KONTZEPTUAK esaten du organismoak bi alelo heredatzen dituela karaktere bakoitzerako, bat guraso bakoitzarengandik.

- Mendelek hau ondorioztatu zuen kromosomei buruz ezer jakin gabe.
- Kromosoma baten locus baten alelo biak berdinak izan daitezke (Mendelek P belaunaldi bezala erabili zituen landare puruen kasuan bezala) edo desberdinak (F_1 hibridoetan bezala).




HIRUGARREN KONTZEPTUAK esaten du locus baten aleloak desberdinak badira alelo batek (dominantea) zehaztuko duela organismoaren itxura, eta beste aleloak (errezesiboa) ez duela efektu nabarmenik izango itxuran.

- Loreen kolorearen adibidean, F_1 landareek lore moreak zituzten alelo dominantea morea delako, nahiz eta alelo zuria ere eduki.

	Seed shape	Seed color	Seed-coat color	Pod shape	Pod color	Flower position	Stem length
Dominant	 Round	 Yellow	 Colored	 Inflated	 Green	 Axial	 Long
Recessive	 Wrinkled	 Green	 White	 Constricted	 Yellow	 Terminal	 Short


LAUGARREN KONTZEPTUAren arabera (gaur egun **SEGREGAZIOAREN LEGEA** bezala ezagutzen da) karaktere heredagarri batentzako bi aleloak banatzen dira (segregatu) gametoak eratzerakoan eta gameto desberdinetan bukatzen dute.

- Beraz, obulu edo espermatozoide batek organismo baten zelula somatikoetan dauden bi aleloetatik bat jasotzen du. Aleloen segregazio hau meiosian gertatzen da kromosoma homologoen banaketarekin gameto desberdinetara.




Beraz, monohibridoen esperimntuen emaitzek oinarria eman zioten Mendelen **SEGREGAZIOAREN LEGEARI**, zeinak termino modernoetan ondokoa adierazten duen:

- (a) zelula diploideek gene-pareak dituzte kromosoma homologoen pare banatan.
- (b) pare bakoitzeko geneak elkarrengandik banantzen dira meiosian, gameto ezberdinetara doazelarik.



B A cross between two plants that breed true for different forms of a trait produces F₁ offspring that are identically heterozygous.




C A cross between the F₁ offspring is the monohybrid experiment. The phenotype ratio of F₂ offspring in this example is 3:1 (3 purple to 1 white).

Figure 11.7 Animated (a) Punnett-square method of predicting probable outcomes of genetic crosses. (b,c) One of Mendel's monohybrid experiments. On average, the ratio of dominant-to-recessive phenotypes among second-generation (F₂) plants of a monohybrid experiment is 3:1.

Figure It Out: How many possible genotypes are there in the F₂ generation?
 Answer: Three: AA , Aa , and aa


P

Fenotipoa:
Genotipoa:
Gametoak:




F₁ belaunaldia

Fenotipoa:
Genotipoa:
Gametoak:



F₂ belaunaldia

Eggs from
F₁ (Pp) plant




Mendelen segregazioaren ereduak bere gurutzamenduetako F₂ belaunaldiaren 3:1 ratioa azaltzeko balio du.

Punnett koadroa erabili daiteke espermatozoide eta obuluen konbinazio posibleak erakusteko eta horrela genetikoki ezagunak diren banakoen gurutzamenduen emaitza kalkulatzeko.


Punnet koadroa oso tresna erabilgarria da, baina ez da egokia problema genetiko guztientzako.

Adibidez, imajinatu errezesiboaren maiztasuna kalkulatu behar duzula, baina ez Aa x Aa gurutzamendu batentzako, ezta AaBb x AaBb gurutzamendu baterako ere, baizik eta AaBbCcDdEe x AaBbCcDdEe gurutzamendurako. Galdera erantzuteko Punnet koadroa erabiliz 1024 laukitxo bete beharko dira.



11.3 Mendelen banaketa independentearen legea

→ Gene asko gametoetan taldekatzen dira independenteki.





Dihibridoak bi karakteretarako heterozigotoak dira.

DIHIBRIDOEN ESPERIMENTUEK agerian uzten dute dominantzia-erlazioa *locus* bitako aleloen artean. Gurutzatu (edo autoernaldu) egiten dira gene biren alelo desberdinen banakoak (heterozigotoak); ondorengoan ezaugarri-proportzioek argibideak ematen dituzte aleloen gainean.


- Mendelek dihibridoen esperimentuen emaitza numerikoak aztertu zituen, baina garai hartako herentziari buruzko ulerkera zela eta, hurrengoa bakarrik proposatu ahal izan zuen:
Ezaugarri bat (ilarren kolorea) zehazten duten “unitateak” gametoetan taldekatzen dira, bestelako ezaugarriak (ilarren itxura) zehazten dituzten “unitateekiko” independenteki.
- Gerora jakin izan zen unitate horiek geneak direla eta kromosoma homologoen pareetan doazela.

Esperimentua




Banaketa dependentearen Hipotesia

F₂ benaunaldian
esperotako
ondorengoak




Banaketa independentearen Hipotesia



Emaitzak

315  108  101  32  Hurbildutako maiztasun fenotipikoa 9:3:3:1


- Mendelen dihibridoen esperimentu bat errepikatu ahal dugu karaktere biko landare bi gurutzatuz: lorearen kolorea (A , morea; a , zuria) eta altuera (B , altua; b , baxua).
 - Progenitoreak: $AABB$ $aabb$
 - Gametoak: (AB, AB) (ab, ab)
 - F_1 , denak dihibridoak: $AaBb$
- Gurutzamendu honen F_1 -eko ondorengo guztiak altuak dira, lore moredunak. Ezaugarri dominante bi erakusten dituzte, baina heterozigotoak dira (dihibridoak).




- Kromosoma homologoak polo oposatuetara doaz meiosian zehar, baina aleatorioa da homologo bakoitza zein polotara doan.

Horrela izanik, posible dira lau alelo-konbinazio $AaBb$ dihibridoaren gametoetan: AB , Ab , aB eta ab .

- Dihibrido bi gurutzatzen direnean, beren aleloak 16 era posibletara konbina daitezke ernalketan (lau gameto-mota banako batean, eta lau mota bestean).
- 16 konbinazio genotipikoek lau fenotipo adieraziko dituzte. 16tik:
 - 9 altuak eta lore moredunak dira.
 - 3 baxuak eta lore moredunak dira.
 - 3 altuak eta lore zuridunak dira.
 - 1 baxua eta lore zuriduna da.



- Fenotipo hauen proportzioa 9:3:3:1 da.
- Gene-pare gehiagorekin konbinazio posibleak ikaragarri handitu daitezke.
Esaterako, progenitoreak 20 gene-paretan desberdintzen badira, genotipo posibilitatea ikaragarria izango da.



- Emaizta hauen azterketatik Mendelek sortutako hipotesiak **BANAKETA INDEPENDENTEAREN LEGEA** izena jaso zuen.
- Egungo ikuspegitik legeak dioena da geneak gametoetan taldekatzen direla gainerako geneekiko independenteki.
- Legea baliozkoa da kromosoma desberdinetan dauden geneentzako, eta kromosoma berdinean dauden gene batzuentzako, baina ez da unibertsala eta salbuespenak ditu.

Esaterako, kromosoma berean oso hurbil dauden geneek meiosian zehar batera irauteko joera dute.

- Mendel zoriduna izan zen landare ilarretan ikerturiko karaktere guztien gene erantzuleak kromosoma desberdinetan zeudelako.



Seed		Flower	Pod		Stem	
Form	Color	Color	Form	Color	Place	Size
						
Round	Yellow	White	Full	Yellow	Axial pods, Flowers along	Long (6-7ft)
						
Wrinkled	Green	Purple	Constricted	Green	Terminal pods, Flowers top	Short $\frac{1}{2}$ -1ft
1	2	3	4	5	6	7

- Mendelek 1866an argitaratu zituen emaitzak, baina haren artikuluak oharkabeen pasatu ziren eta inork ez zituen ulertu.
- Beranduago monasterioko buru bihurtu zen eta 1870eko hamarkadan ikerlanak utzi zituen.
- 1884an hil zen, jakin gabe bere ikerketak genetikaren abiapuntua zirela.




PROBABILITATEAREN LEGEAK

- Mendelen segregazio eta banaketa aleatorioaren legeek probabilitatearen arauak islatzen dituzte.
- Txanpon bat botatzearen emaitzak ez du eraginik hurrengo aldiz botatzean sortuko den emaitzan.
- Gauza bera gertatzen da aleloekin, gene bat gameto batean segregatuko da beste gene baten aleloaren independenteki.



Biderketa eta batuketa arauak gurutzamendu **monohibridoetan** aplikatu ditzakegu:

- **BIDERKETAREN ARAUAK** esaten du bi gertaera independente edo gehiago elkarrekin gertatzeko probabilitatea bere probabilitate indibidualen biderketaren emaitza dela.
- Gurutzamendu monohibrido baten F_2 kalkulatu daiteke biderketaren araua erabiliz.
 - Landare heterozigoto baten segregazioa txanpon bat airera jaurtitzea bezala da: gameto bakoitzak $\frac{1}{2}$ probabilitatea du alelo dominantea eramateko (R) eta $\frac{1}{2}$ alelo errezesiboa eramateko (r).
 - Beraz RR homozigotoa sortzeko probabilitatea izango da R daraman espermatozoidea sortzeko probabilitatea x R obulua sortzeko probabilitatea, hau da, $\frac{1}{2} \times \frac{1}{2} = \frac{1}{4}$.
 - Gauza bera rr-ren kasuan.



GEHIKETAREN ARAUAK esaten du edozein bi gertaera baztertzaille edo gehiago gertatzeko probabilitatea kalkulatu daitekeela beraien probabilitate indibidualak gehituz.

Erabili daiteke F_2 landare baten gurutzamendu monohibrido batean heterozigotoaren probabilitatea kalkulatzeko.

- F_2 landareak heterozigotoak izan daitezke bi modu desberdinetan: espermatozoidea R bada eta obulua r , landarea Rr izango da, gertaera honen probabilitatea $\frac{1}{2} \times \frac{1}{2} = \frac{1}{4}$ da; edo espermatozoidea r bada eta obulua R , kasu honen probabilitatea ere $\frac{1}{4}$ da.
- Era batera edo bestera sortuko da heterozigotoa, gertaera baztertzailleak dira.
- Orduan era desberdinetan gertatu daitekeen gertaeraren (heterozigotoa izatea) probabilitatea kalkulatzeko gehiketaren araua erabiltzen da, batzen dira heterozigotoa lehen moduaren bidez izateko probabilitatea + bigarren moduaren bidez izatekoa, hau da $\frac{1}{4} + \frac{1}{4} = \frac{1}{2}$.





Figure 11.6


Orduan F_2 genotipoen
proportzioa
 $\frac{1}{4}$ RR, $\frac{1}{2}$ Rr, $\frac{1}{4}$ rr da;
hau da, 1:2:1.
Fenotipoak, aldiz, 3:1.



Gehiketaren araua erabiliko dugu kalkulatzeko $Aa \times Aa$ gurutzamenduaren ondorengoaren zein proportziok lortuko duen AA edo Aa genotipoa (fenotipo dominantea).

Gurutzamendu honetan 3 gertaerek sortu dezakete fenotipo dominante bat:

- Bi gameto A elkartzen dira (AA genotipoa sortuko da)
- Amaren gameto A bat eta aitaren a bat elkartzen dira (Aa genotipoa)
- Amaren gameto a bat eta aitaren A bat elkartzen dira (Aa genotipoa)



Ernalkuntzaren edozein gertaeran posibilitate hauetatik bat bakarrik gertatu daiteke (bata bestearekiko baztertzaileak dira).

Gertaerak baztertzaileak direnez gehiketaren araua erabili dezakegu.

- Gertaera indibidual bakoitza gertatzeko probabilitatea $\frac{1}{4}$ da (hau biderketaren arauaren bidez kalkulatu dugu).
- Orduan, ondorengoak fenotipo dominantea izateko probabilitatea izango da: (amaren A eta aitaren A jasotzeko probabilitatea) + (amaren A eta aitaren a jasotzeko probabilitatea) + (amarena a eta aitaren A jasotzeko probabilitatea) = $(\frac{1}{4}) + (\frac{1}{4}) + (\frac{1}{4}) = \frac{3}{4}$.

- Probabilitatearen arauak erabili ditzakegu **karaktere multipleak** biltzen dituzten gurutzamenduen emaitzak kalkulatzeko (gene bat baino gehiago inplikaturik daudenean), Punnet koadro erraldoiak egin gabe.
- Gurutzamendu dihibridoa edo karaktere multipleduna aldi berean gertatzen diren bi gurutzamendu monohibrido independente edo gehiagoren berdina da; izan ere, banaketa aleatorioaren legeak esaten du aleloak independenteki segregatzen direla gametoetan.
- Zenbait genotipo multiple agertzeko probabilitatearen kalkuluan, karaktere bakoitza independenteki kontsideratzen da, eta ondoren probabilitate indibidualak biderkatzen dira.
- Adibidez, $YyRr$ F_1 heterozigotoak gurutzatzen baditugu, F_2 belaunaldien genotipo desberdinen probabilitatea kalkulatu dezakegu biderketaren araua erabiliz: independenteki lortzen dugu YY , Yy , yy , RR , Rr eta rr genotipoen probabilitatea eta gero emaitza indibidualak biderkatzen ditugu.

$$\text{Probability of } YYRR = \frac{1}{4} (\text{probability of } YY) \times \frac{1}{4} (RR) = \frac{1}{16}$$

$$\text{Probability of } YyRR = \frac{1}{2} (Yy) \times \frac{1}{4} (RR) = \frac{1}{8}$$

- Biderketaren eta Gehiketaren arauak erabili ditzakegu arazo genetiko konplexuagoak ebazteko.
 - Adibidez fenotipo desberdinen probabilitatea kalkulatzeko. Horretarako genotipo bakoitzaren probabilitatea kalkulatu dugu biderketaren araua erabiliz eta gero emaitza guztiak gehitzen ditugu.
- Adibidez, $PpYyRr \times Ppyyrr$ gurutzamendurako, kalkulatu dezakegu zenbat ondorengok erakutsiko duten gutxienez bi ezaugarri errezesiboren probabilitatea gehiketaren arauak erabiliz. Beraz, genotipo desberdinek 2 ezaugarri errezesibo izatea beteko dute, genotipo bakoitzaren probabilitatea kalkulatu behar dugu eta gero guztiak gehitu.

$$ppyyRr \quad \frac{1}{4} \text{ (probability of } pp) \times \frac{1}{2} (yy) \times \frac{1}{2} (Rr) = \frac{1}{16}$$

$$ppYyrr \quad \frac{1}{4} \times \frac{1}{2} \times \frac{1}{2} = \frac{1}{16}$$

$$Ppyyrr \quad \frac{1}{2} \times \frac{1}{2} \times \frac{1}{2} = \frac{2}{16}$$

$$PPyyrr \quad \frac{1}{4} \times \frac{1}{2} \times \frac{1}{2} = \frac{1}{16}$$

$$ppyyrr \quad \frac{1}{4} \times \frac{1}{2} \times \frac{1}{2} = \frac{1}{16}$$

$$\text{Chance of } \textit{at least two} \text{ recessive traits} = \frac{6}{16} \text{ or } \frac{3}{8}$$

11.4 Dominantziatik haratago

- Mendel argi eta garbi dominante edo errezesibo diren aleloen karaktereetan oinarritu zen.
 - Alabaina, karaktere batzuen espresio-patroiak ez dira horren agerikoak.
 - Hala ere, segregazioaren eta banaketa aleatorioaren oinarritzko printzipioek herentzia patroik konplexuetan funtzionatzen dute.
- Gene bakarreko karaktereen herentziak ez ditu Mendelen patroik sinpleak beteko ondorengo kasuetan:
- Aleloak guztiz dominante edo errezesibo ez direnean.
 - Gene batek bi alelo baino gehiago dituenean.
 - Gene bakarrak fenotipo multipleak sortzen dituenean.

DOMINANTZIAREN MAILAK

- Guztizko dominantzia edo dominantzia osoa: hau gertatzen da heterozigoto eta homozigoto dominantearen fenotipoak berdinak direnean, Mendelek ikusitakoa.
- Dominantzia ez-osoa: hau gertatzen da F_1 belaunaldiko hibridoen fenotipoa parentalen bi fenotipoen artean kokatzen denean, nahaste bat da.
- Kodominantzia: bi alelo dominantek fenotipoaren gainean efektu bat dute era bereizian. Bi aleloek adierazitakoa agertzen da batera fenotipoan, nahasketarik gabe.

DOMINANTZIA EZ-OSOIA

- Dominantzia ez-osoaren kasuan, alelo bat ez da guztiz dominantea bestearekiko, eta hortaz, heterozigotoaren fenotipoa homozigoto bien tartekoa da nolabait.
- Dragoi-mutur lorearen (*Antirrhinum majus*) bi ale pururen (bata lore gorriduna eta bestea zuriduna) gurutzamenduak dominantzia ez-osoia erakusten du: F_1 -eko kume guztiak lore arrosadunak dira.
 - Zergatik? Dragoi-mutur lore gorridunek alelo bi dituzte pigmentu gorri asko ekoiztea baimentzen diena. Dragoi-mutur lore zuridunek alelo mutatu bi dituzte: ez dute inolako pigmenturik ekoizten eta loreak kolore gabeak dira. Lore arrosdun dragoi-mutur heterozigotoek (alelo bat “gorria” eta alelo bat “zuria”) ekoizten duten pigmentu kopurua ez da nahikoa loreak gorri izan daitezen, arrosan gelditzen direlarik. Lore arrosdunak dituzten F_1 -eko bi landare gurutzatzean, 1:2:1 proportzioa espero dezakegu F_2 belaunaldian.






Figure 11.10-s3




P



Black chicken
 $C^B C^B$

×




White chicken
 $C^W C^W$




F₁

All "blue"
chickens
 $C^B C^W$




Mating among
F₁ generation

F₂





1 black
 $C^B C^B$

:



2 "blue"
 $C^B C^W$


:




1 white
 $C^W C^W$






KODOMINANTZIA

